



DONEZTEBEKO UDALA

Calle Mercaderes 9
31740 Santesteban
Navarra

komunikazioa@doneztebe.eus
948 45 00 17



PRENTSA OHARRA

Doneztebeko Udalak herritarrekin komunikazioa hobetzeko WhatsApp difusio kanala martxan jarri du

Herritarrek Donezteberi eta Udalaren ekimenei buruzko informazioa praktikoa jasoko dute, mugikortasun interbentzioak esaterako.

Doneztebeko informazio garrantzitsuena zuzenean telefono mugikorrean jasotzeko inizatiba martxan jarri du Udalak, herritarrekin zuzeneko komunikazioa indartzeko asmoa duen WhatsApp difusio kanala. Udalaren esanetan eduki praktiko eta interesgarriak ezagutzera emateko tresna izango da, hala nola abisuak, erabaki garrantzitsuak edota ekimen bereziak.

Doneztebeko mugikortasun eredia berritzeko neurriak adibidetzat jo ditu Udalak. Urria hasieratik urte bukaera arte hainbat moldaketa egiten ari dira trafikoa zein aparkalekuetan, eta Udalak azaldu du komunikazio tresna honek berrikuntza horiei buruz informatzeko ere balioko duela.

Zerbitzuan alta

Herritarrek difusio kanalean alta emateko "Alta" dioen WhatsApp mezu bat bidali beharko dute 641 58 99 08 telefonora. Udalak adierazi du pribazitatea errespetatzeko asmoz herritarrek ez dutela beren burua identifikatu beharko, soilik "Alta" dioen mezua bidali.

Ordutik aurrera alta ematen duten herritarrek udalak bidalitako informazio interesgarria jasoko dute eta udalak neurritz erabiliko duela nabarmendu du, "difusio kanala soilik puntualki erabiliko dugu, astean behin ziurrenik, webgunean eta sareetan argitaratzen dugun edukien aukeraketa praktiko eta interesgarri bat zabaltzeko".

Udalak jakinarazi du ez dela WhatsApp talde bat izango, herritarrek soilik udalaren mezuak jasotzeko kanala izango da. Herritarrek beren kezka azaldu edota kontsultak egiteko orain arteko parte hartzeko bideak erabili ahalko dituzte: Udalaren sare sozialak, Udaletxeko telefonora deitu (948 45 00 17) edota epostaz idatzi (santesteban@doneztebe.eus).



DONEZTEBEKO UDALA

Calle Mercaderes 9
31740 Santesteban
Navarra

komunikazioa@doneztebe.eus
948 45 00 17



PRENTSA OHARRA

El Ayuntamiento de Santesteban pone en marcha un canal de difusión WhatsApp para mejorar la comunicación con la ciudadanía

Los vecinos recibirán información práctica sobre la localidad y sobre las iniciativas municipales como las nuevas intervenciones en movilidad.

El Ayuntamiento ha puesto en marcha una iniciativa para que la población pueda recibir directamente en su teléfono móvil la información más relevante de Santesteban, un canal de difusión de WhatsApp con el que pretende reforzar la comunicación directa con la ciudadanía. El Ayuntamiento asegura que será una herramienta para dar a conocer contenidos prácticos e interesantes como avisos, eventos concretos o decisiones importantes.

El Ayuntamiento pone como ejemplo las medidas para renovar el modelo de movilidad de la localidad. Desde principios de octubre hasta finales de año se están realizando diversas intervenciones tanto en el tráfico como en los aparcamientos, y el Ayuntamiento ha expresado que esta nueva herramienta de comunicación servirá también para informar sobre estas actuaciones.

Alta en el servicio

Las personas que quieran darse de alta en el canal de difusión deberán enviar un mensaje de WhatsApp al 641 58 99 08 con el texto "ALTA". Desde el Ayuntamiento han señalado que con el fin de respetar la privacidad la población no será necesario identificarse, bastará con enviar el mensaje de "ALTA".

La población que se inscriba en el canal recibirá información remitida por el ayuntamiento de forma proporcionada, "utilizaremos el canal de difusión de forma puntual, probablemente una vez por semana, para difundir una selección práctica e interesante de los contenidos que publiquemos en la web y en las redes sociales" añaden.

El Ayuntamiento ha informado de que no se tratará de un grupo de WhatsApp en el que cualquiera difunde mensajes, sino un canal para que la ciudadanía reciba exclusivamente mensajes del ayuntamiento. La ciudadanía podrá expresar sus inquietudes y/o realizar consultas a través de los canales de participación existentes hasta la fecha: las redes sociales del Ayuntamiento, llamar al teléfono del Ayuntamiento (948 45 00 17) o escribir por email (santesteban@doneztebe.eus).